

## **HELDUTASUNA – MADURACIÓN**

Sagasti batzuetan hartutako laginekin heldutasun proba bat egin dut, eskala txikian. Aurreko urtearekin konparatuta sagarren heldutasuna antzekoa dator, ia ez daude ezberdintasunik. Aurten, udaberrian heldutasuna atzeratu egingo zela ematen zuen, baina udan zehar heldutasunaren abiadura bizkortu egin dela agerian geratu da orain. Ziur aski, beroaren ondorioz.

Azukrea (<sup>o</sup>Brix) ere, antzekoa da une honetan : 9 tik 13 ra barietateen arabera. Gehienak 9 eta 11 <sup>o</sup>Brix artean daude.

Urtero bezala, iraileko bigarren astean heldutasun proba orokorra egingo dut.

Datuak sagasti batetik bestera ezberdinak izango dira kokapen geografikoagatik edo sagastiaren orientazioagatik. Badago beste datu bat kontutan hartu behar dena ere : loraldia oso luzea izan zen, hilabete bateko tartearekin arbola batzuetan. Hilabeteko tarte hori murriztu dela argi dago, baina ziur aski arbola beretan heldutasun maila ezberdinak egongo dira. Horregatik komenigarria da bakotzak bere heldutasun kontrola egitea.

Respecto al año pasado la maduración viene muy similar. Estos datos están obtenidos de un muestreo a pequeña escala realizada en algunos manzanales. Durante la primavera parecía que la maduración vendría más retrasada pero vistos los resultados de este muestreo está claro que la maduración se está adelantando. Seguramente debido al calor.

El azúcar (<sup>o</sup>Brix) también está alto en este momento: de 9 a 13 según variedades. La mayoría está entre 9 y 11 <sup>o</sup>Brix.

La segunda semana de septiembre realizaré el control amplio de maduración como todos los años. Un dato a tener en cuenta es que la floración fue muy larga, con diferencias de hasta un mes dentro del mismo árbol. Esta diferencia se ha reducido entre los frutos, pero es seguro que dentro del mismo árbol existirán diferentes estados de maduración. Además, los datos de maduración variarán entre una plantación y otra tanto por la situación geográfica como por su orientación, por lo que es importante que cada uno sepa cómo está la situación en su manzanal.

Regresión del Almidón	Barnekaldea / Interior	Kostaldea / Costa	Finca Otalarrea
Txalaka	3	3	2 (+1)
Manttoni	2	2	2
Gezamina	3	3	3
Urtebi Txiki	2	2 (-1)	2
Urtebi Haundi	2 (+1)	2	2
Patzolua	3 (-1)	3	3
Moko	1	2	1
Mozolua	3	3 (-1)	2 (-1)
Verde Agria	2	2	1
Errezila	1	1	1
Urdin	3	2	3 (+1)

(Entre paréntesis se indica la diferencia respecto al año pasado. El resto de los datos son iguales)